



**IRAKASLE FUNTZIONARIOEN LAN-BALDINTZAK (2010-2012) ARAUTZEKO
HITZARMENEN 20. ARTIKULUA APLIKATZEA.
ORDEZKAPENEI ERANTZUTEA.**

Atala ORDEZKAPENEI ERANTZUTEA.

Lehen egunetik PTEko ikasgela itxietako bajak eta liberazio sindikalen ondoriozkoak ordezkatu dira.

Haur Hezkuntzako bajak eta norberaren gauzatarako baimenak jakinarazi eta hurrengo egunean ordezkatu dira.

Hirugarren egunetik Lehen Hezkuntzan Ingelesari eta Euskarari dagozkion bajak.

Laugarren egunetik Lehen Hezkuntzako gainerako ordezkapenak.

Bosgarren egunetik Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa, Hizkuntza Eskola Ofizial, Kontserbatorio, Arte-eskola eta HHEko ikastetxeetakoak.

Irakasle funtzionarioen lan-baldintzak (2010-2012) arautzen dituen hitzarmenaren ondoriozko Batzorde Parekidea eratu dute hitzarmen hori sinatu zuten alderdiek, hau da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta CCOO eta FETE-UGT sindikatuek. Batzorde Parekide horrek jarraitu egin du aztertzen nola aplikatu behar den hitzarmen horren 20. artikuluko ezarritakoa, ordezkapenei erantzuteko, eta hainbat kontu erabaki ditu artikuluko hori nola aplikatu behar den zehazteko.

Zirkular honek, berriz, erabaki horien edukia jaso, eta EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko guztietara helarazten du, erabakitakoaren berri izan dezaten.

IRIZPIDE OROKORRAK.

Egunak kontatzeko irizpide modura, egun naturalak hartuko dira kontuan, salbu kontratua gauzatzen den eguna jai-eguna edo eskolarik gabeko eguna denean; kasu horretan, ordezkapena lehenengo eskola-egunean betetzen dela ulertuko da.

Baja terminoa edozein hutsegite moduan ulertu beharko da, lizentzia eta baimen guztien ondoriozkoak ere bajatzat joko dira.

Aldi bateko ezintasunen kasuan, ezintasunaren hasiera-eguntzat joko da baja-partean ezintasunaren hasiera-egun moduan jasotzen dena.

**2.- PTEko GELA ITXIETAKO ETA LIBERAZIO SINDIKALETAKO BAJAK
ORDEZKATZEA.**



PTEko gela itxitzat joko dira berariazko curriculumak duten ikasleak dituztenak, hau da, PTE irakasleaz gela itxietara zuzendutako ikasleak dituztenak, berdin izanik PTE lanpostua berezia den ala ez.

PTEko gela itxietako eta ordezkari sindikalen baje kasuan, bajaren lehen egunean bertan ordezkaturako dira, berdin izanik zerik eragin duen baja, salbu egun hori jai-eguna bada; halakoetan, irizpide orokorretan ezarritako printzipio orokorra aplikaturako zaio ordezkariari.

3.- HAUR HEZKUNTZAKO BAJAK ORDEZKATZEA

Gertaera eragilea izan eta hurrengo egunean beteko dira Haur Hezkuntzako bajak edo hutsegiteak, salbu egun hori jai-eguna denean; halakoetan, irizpide orokorretan ezarritako printzipio orokorra aplikaturako da.

(Adibidez: Ez da ordezkaturako Haur Hezkuntzako azterketa-egunik. Aldi baterako ezintasuna, berriz, ezintasuna hasi eta hurrengo egunean beteko da.

4.- NORBERAREN GAUZETARAKO BAIMENAK ORDEZKATZEA.

Norberaren gauzetarako baja edo hutsegiteen kasuan, jakinarazi eta hurrengo egunean ordezkaturako dira, salbu egun hori jai-eguna denean; halakoetan, irizpide orokorretan ezarritako printzipio orokorra aplikaturako da. Beraz, huts egindako lehen eguna ez da beteko.

(Kontuan izan zer proposatu den gela itxiak ordezkatzeko, ordezkariak lehen egunean betetzen baitira)

Horrek esan nahi du norberaren gauzetarako egunak egun bakarrekotik direnean, ez direla ordezkaturako, aurreko paragrafoan jasotako salbuespenean izan ezik.

Hutsegitea astebete baino lehenago jakinaraziz gero, lehenengo egunetik bertatik ordezkaturako da.

5.- EUSKARA ETA INGELESEKO ORDEZKAPENAK LEHEN HEZKUNTZAN.

Lehen Hezkuntzan ingeles- eta/edo euskara-plazetan bajarik edo hutsegiterik badago, baja edo hutsegitea izan eta hirugarren egunetik aurrera ordezkaturako dira,

(adibide modura, baja (hutsegitea) 2010eko irailaren 6an gertaturako balitz, irailaren 9an ordezkaturako beharko litzateke. Baja-prozesua irailaren 7an gertaturako balitz, irailaren 10ean ordezkaturako beharko da.

6.- HAUR HEZKUNTZAKO GAINERAKO ORDEZKAPENAK.

Gainerako kasuetan, Lehen Hezkuntzan, baja edo hutsegitea gertatu eta laugarren egunetik ordezkaturako dira, salbu egun hori jai-eguna denean; halakoetan, irizpide orokorretan ezarritako printzipio orokorra aplikaturako da.



7.- BIGARREN HEZKUNTZA, LANBIDE HEZIKETA, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK, KONTSERBATORIOAK, ARTE ESKOLAK ETA HHE IKASTETXEAK.

Bigarren Hezkuntzako ordezkapenak, zirkular honetan jasotako salbuespenekin, bosgarren egunetik aurrera gauzatuko dira, baja edo hutsunea izan eta biharamunetik aurrera; salbu jai-eguna denean; halakoetan, irizpide orokorretan ezarritako irizpide orokorra aplikatuko da.

HHE ikastetxeetan, plaza guztietako ordezkapenak beteko dira, betetzen dituzten lagunak eta horien kidegoa gorabehera.

8.- EGOERA BEREZIAK EDO EZOHIKOAK.

- Deialdian ezarritakoaren arabera ordezkatuko dira GARATUk programatutako jardueren bidez edo beste deialdi batzuen bidez deitutako prestakuntza-jarduerak. Bestelako prestakuntza-jardueren kasuan, kasuan kasurako Langileak Kudeatzeko zuzendariak zehazten dituen irizpideak beteko dira.
- Lanaldi osoko plaza baten titularrak lanaldia murrizteko eskatzen duenean, ordezkapena lehenengo egunetik bertatik beteko da, beti ere egoera astebete lehenago jakinarazita bada, gutxienez.
- Ordezko laguna lanaldi murriztua betetzen ari bada eta titularra aldi bateko ezintasun egoerara pasatzen bada, ordezkoaren izendapena aldatzeko baimena emango da, 20. artikuluan ezarritako epeei lotu gabe, beti ere gela berean jarduteko eta irakasle hori bera ordezkatzeko.
- Hainbat baja edo hutsegite lotzen direnean (esaterako, ALE ostean ezkontzaren ondoriozko lizentzia), pertsona berak egin ahal izango ditu ondoz ondoko ordezkapenak, 20. artikuluan ezarritako epeei lotu barik.
- Ordezka gaiak dagoeneko ordezkapen bat eginda duenean eta 10 eskola-egun igaro baino lehenago berriro irakasle bera ordezkatu behar izanez gero, ordezkapen hori pertsona berari eskaini ahal izango zaio, 20. artikuluan ezarritako epeei lotu gabe.
- Eskolaz kanpoko ekintzak ordezkatzeko. Hutsegiteak bete egingo dira hiru hilabetetik goragokoak izatea aurreikusten bada; halakoetan, dagokion hezkuntza-mailari dagozkio, irizpideak aplikatuko dira.
- Irakastordurik ez duten jantoki-arduradunak ordezkatzeko. Hutsegiteak bete egingo dira hilabetetik goragokoak izatea aurreikusten bada; halakoetan, dagokion hezkuntza-mailari dagozkion irizpideak aplikatuko dira. Irakastorduren bat eman behar duten jantoki-arduradunei dagokien mailako irizpide orokorrak aplikatuko.
- Berritzeguneetako ordezkapenak. Irizpide orokorra da ez ordezkatzeko, salbu Langileak Kudeatzeko zuzendariak baimena ematen duenean.
- Barnetegietako ordezkapenak. Premien arabera ordezkatuko dira



- Ordaindu gabeko baimenak ordezkatzeari. Norberaren gauzetarako baimenekin aplikatutako irizpide berak aplikatuko dira.
- Haurdunaldi, amatasun, aitatasun, adopzio edo harreraren ondoriozko lizentziak ordezkatzeari. Hutsegitea astebete baino lehenago jakinaraziz gero, lehenengo egunetik bertatik ordezkatu da.

Beranduago jakinaraziz gero, baja edo hutsegitea izan eta hurrengo egunetik beteko da, hau da, ez da lehenengo eguna beteko.

- Lehenengo egunean bertan ordezkatu da irakasleak, baldin eta gaixorik egotearen edo istripuren bat izatearren irakasleek ez badute oporrik izan baina izateko eskubidea badute, beti ere Langileak Kudeatzeko zuzendariak 2010eko azaroaren 2an emandako Zirkularrean ezarritakoaren arabera.
- Era berean, irakasleek erretiroa hartzen badute, lehenengo egunean bertan jarriko zaie ordezkia.
- Lehen Hezkuntzako irizpide berak aplikatuko zaizkie Zereginak Ikasteko geletako eta curriculum-aniztasuneko irakasleen hutsegiteei (gertaera eragilea suertatu eta hurrengo egunean beteko dira, egun hori jai-eguna denean izan ezik).

9.- APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEAK MALGUTZEA.

Hezkuntza-eskaintzaren kalitatea bermatzea.

Alderdien borondatea da irizpide horiek aplikatuko direla zaintzea, eta malgutasunez aplikatuko direla bermatzea; izan ere, helburua da jarritako irizpide horiek sartzea hezkuntza-eskaintzaren kalitatea jagon eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleei erantzungo zaiela bermatzeko izan behar diren baldintzen artean.

Ildo horretatik, Batzorde Parekideak berme-irizpidetzat jartzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arduratu egingo dela unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkapenak betetzeaz, eta erreferentzia-irizpidetzat jartzen du, berriz, ikastetxe jakin bateko irakasleen hutsegiteek ez gauditzea %10 egunbete baino gehiago.

Beraz, ikastetxeren batean horrelakorik gertatuz gero, hau da, egun bakar batean ordezkia daitezkeen irakasleen hutsegiteek %10 gaudituz gero, ez dira irizpide orokorrak aplikatu behar eta berehala beteko dira ordezkapenak, harik eta adierazitako gutxieneko baldintzak bete arte.



Horrela, bada, 20 irakasleko ikastetxe batean, egun berean ordezkari daitezkeen 3 irakasle falta badira, hurrengo egunean bertan ordezkari da hirugarren irakaslea, irizpide orokorrak dioena gorabehera.

Ikastetxeak 30 irakasle baditu, berdina jokatu da, baina aldi berean 4 irakasle falta direnean.

Era berean, ikasleei behar bezala erantzuteaz arduratuko da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; horretarako, malgutasunez aplikatu dituzten ordezkariak betetzeko irizpideak, baldin eta falta diren irakasleak espezialitate berekoak badira edo egoerak berez bereziak badira eta horrela adierazten badira (eskola txikiak,...).

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 12a.

A handwritten signature in black ink, consisting of a large, stylized 'J' and 'M' followed by a horizontal line.

Juan Manuel Aramendi Arteaga
Langileak Kudeatzeko zuzendaria
Director de Gestión de Personal